

# Zahartze Aktibo Baterako Etxebizitza

Laburpena: Artikulu honek Zahartze aktibo batentzako etxebizitza. Paradigma daniarra tesian azalduko ondorioak jasotzen ditu. Horretarako, ehundik gora nazioarteko etxebizitza mota aztertzen dituen datu-basea eratu da. Arkitekturak ematen dituen erantzunez gain, Gerontologiak eta Soziologiak ematen dituen soluzioak ere aztertu dira, fokalizazio bialago bat izateko bidera. Ikerketa honek XX. mendean adinduentzako etxebizitzak jazotako aldaketak kontuan hartzen ditu. Etxe-giroaren espezializazioak eta erabiltzailearen nahiek eta beharrek karakterizatu dute espazio hori.

Gako-hitzak: zahartze aktiboa, nagusientzako etxeak, etxebizitza malgua, diseinu unibertsala.

Abstract: This paper compiles the main conclusions of a Ph.D. Thesis titled "Housing for Active Ageing. An extensive database with more than 100 international examples has been created for the analysis of Model evolution. A multidisciplinary approach including Gerontology and Sociology has been included for a better understanding of the ageing challenge. This research stresses the influence of the concept of housing on the different solutions of living for the elderly, as well as how the specialization of the domestic space under a compensatory approach has defined and characterized many of these models.

Keywords: Active Ageing, Housing for the elderly, Flexibility, Universal Design.



Heitor García Lantarón

Arkitekto doktorea ETSAMen, Universidad Politécnica de Madrid (UPM). Gonbidaturiko ikertzailea By Bolig og Ejen-dom (BBE) Departamentuan, Eraikuntzaren Ikerketarako Institutu Daniarrean (Statens Byggeforskinginstitut) Aalborg-eko Unibertsitateari lotua (AAU).

Jasotze data: 2016-02-01  
Onarpen data: 2016-02-15

## Sarrera

Ikerketa lan hau adinduentzako etxebizitza mota berrien inguruko joeraren azterketa bat da. Gaur egungo erabiltzaile konplexuak etxebizitzaren kontzeptuaren berrikusketa duen eraginean eta berau aztertzeko sailean sar daiteke azterketa hau. «Bizitzaren ugaritasunak»<sup>1</sup>, gizarte-talde berri baten barietatea onartzeaz gain, bizitzaren azken unean beronek izan dezakeen konplexutasuna ere kontuan hartzen du. Fenomeno demografiko horrek behar eta eskaera berriak sorrarazi ditu, ez pertsona osasuntsu eta produktibo batentzat, baina ezta bakarrik pertsona nagusi menpekoendako ere; baizik eta erabiltzaile ahaldu, independente eta aktiboendako ere.<sup>2</sup> Ikerketa honen ikuspegia, arkitektura-gaietan oraindik periferikoak diren gaietara zedarrizten da, adinduentzako etxebizitza-eredu eta behar berrietara alegia, eta nola zahartu etxean edota etxean bezala. Adinduek nor bere etxetik kanpo bizitzeko aukeraz ari garenean, Espainian, etxebizitza-eskaintza gehienbat eredu instituzionaletan dago oinarritua. 80ko eta 90eko hamarkadetatik aurrera Europako gainerako herrialdeetan, egitura desinstituzionalizatu eta etxex etxeko

zerbitzuetan zentratzen ari ziren bitartean, Espainian, eraikuntza-burbuilaren ondorio bezala, kapazitate handiko egoitzetan oinarritu zen eskaera, nahiz eta informe ugari aukera hori gaitzetsi (Sancho eta Rodríguez, 2001:261). Joera horrek orain arte bere horretan iraun du Espainian. Beste herrialdeetan kontrako noranzkoan joan arren, Espainian, adinduentzako politika desegokiak aplikatzen dira.<sup>3</sup> Hala ere, badira zenbait esperientzia egoki, baina oraindik orkurtu gabe edo portzentaje baxuan aplikatzen direnak.

Finean, behin adinduek arazo fisikoak zein adimenekoak dituenean, laguntzea da aplikatzen den politika orokorra, zaharren egoitzen bitartez edota, adinduek dagoeneko bere etxean bizitzeko aukerarik ez duenean, beste toki egokiagoetara eramanez (etxebizitza tutelatuak). Ordura arte, familiartea izaten da laguntza hori ematen duena, eta batzuetan lan hori hartzen duena. Etxebizitza-eskaera handiak eta eredu instituzionalak ematen dituzten erantzun urriek arrazoitu dezakete adinduek etxebizitza-eredu berriei buruz duten interes berezia. Horren harira, azkenaldian jende adindu ugari, taldetan gehienbat, euren etxebizitza-eremua garatzeko ekintza batzuk antolatu dituzte, betiere Europako gainerako herrialdeen atzetik.

1 Gizartearen zahartzeak gizarte anitzagoa dakar eta —alor ugari oraindik aztertu gabe daude— (Moody, 1988).

2 «Young Old» (Neugarten, 1974).

3 IMSERSOren arabera, % 4 bakarrik dago eredu instituzionalen, eta % 87 bere etxe propioan geratzen da (IMSERSO, 2014).

Ekimen horiek izan duten garapena nahiko irregularra izan da, eta ez dute guztiek aurrera egin. Ikerketa hauek aurrera egin ahala, batzuek aurrera jo dute eta beste batzuk atarian geratu dira. Ikeketa honen helburua, hortaz, etxebizitzaredu berrien inguruko azterketa egitea da eta nola eta zer erantzun ematen dien erabiltzaile ez homogeneoa den gizarte-talde bati.

### Metodologia

Ikerketaren testuingurua, hiru gairen bitartez definitzen da: adinduentzako etxebizitza, adinduak berak, eta biak lotzen dituen, zahartzaroa. Hiru gai horiek lotzeko, era beran, priektu arkitektonikoak, Gerontologia eta Soziologia aztertu dira.

Gai sozialetatik eginiko ekarpen nagusia «zahartzaro aktibo» kontzeptuan datza<sup>4</sup>. Kontzeptu hori prozesu konplexu moduan ulertzen da, modu pertsonalean eta aktiboan hartu daiteke eta esperientzia gogobetegarri bihur daiteke, norbanakoaren eboluzio eta garapenaren barnean. Planteamendu horren eraginez, beharrezkoa da marko teoriko bereizi bat ezartzea, zeinak etorkizuneko diseinu-artezipideak ezarriko dituen. Diziplina arkitektonikoan eginiko azterketari dagokionez, esan beharra dago nazioarteko 105 proiektu aztertu direla, 1901etik 2013ra garatuak izan direnak. Proiektuok datu-base batean sartu dira; bertan ez dira adinduentzako etxebizitzak bakarrik aztertu, baita goitzak eta eredu mistoak ere.

Proiektuak aukeratzeko irizpidea bost puntutan nabarmendu genezake. Lehenik, proiektuaren originaltasuna eta sortzen duen interesa daude. Bigarrenik, Europako iparraldeko ereduak aztertu dira, batez ere Espainian ez dutelako batere oihartzunik izan eta Espainian ezarritako ereduak zerikusit gutxi dutelako. Hirugarrenik, proiektu ezezagunak aukeratu dira, eta beroriek aztertze eta azaleratzeko garrantzia azpimarratu da. Laugarrenik, Espainian arrarotzat har daitezkeen ereduak aukeratu dira. Eta bosgarrenik, proiektuen autoreei erreparatu zaie, arkitekto prestigiotsuen proiektuei hain zuzen.

### Emaitzak eta eztabaida

Arkitektura gaiari dagokionez, arestian esan bezala, ikerketa honek XX. mendeko aldaketa ugari jaso ditu, nagusientzako etxebizitzari dagokienez behinik behin. XX. mendearen hasieran, neurri antropomorfitiko konkretu batzuen aldeko hautua egin zen, zeinak diseinu mota guztiak gidatzen zituen. Argi geratu zen, ordea, diseinu horrek ez zituela pertsona batzuek izan ditzaketen berezitasunak zein sentimenduak

kontuan hartzen. Gizatalde estandar horretatik kanpo zenarentzat ez zen egokia diseinu hori<sup>5</sup>. Mugimendu Modernoari egiten zaizkion kritiketatik abiatuta, diseinuaren estandarizazio hau ere kritikatu da (Fernández-Llerez, 2013:69). Ondorioz, gizartearen espektro zabalagoa kontuan hartzen zuen diseinu mota zabaltzen hasi zen (Lambert, 2012) eta gizarte-talde berezientzako estandar berriak aplikatu<sup>6</sup>. Erabiltzaile tipo batetik, gizarte-egoeragatik banatutako erabiltzaile berezietara pasa zen

Erabaki hauek guztiek gaur egungo higiezin merkatuan ere berebiziko garrantzia dute. Alde batetik, erabiltzaile estandarra daukagu, familia mota tradizionalakoa, eta, bestetik, erabiltzaile berezia. Ikuspegi honek ez du normalean soluzio unibertsalik eskaintzen eta nagusientzako zein galeraren bat duten pertsonentzako etxeak oraindik ere etxebizitza berezitat har daitezke. Esan beharra dago, legedia ere modu horretara antolatua dagoela.

Bestalde, osasungintzaren eta arkitekturaren arteko erlazioaz ere ohartu behar gara (Colomina, 1997: 230). Ideia bateratzaile horren barruan ikusi behar da Arkitektura Modernoak XX. mendearen hasieran zuen ikuspegi osatzailea edo sendatzailea. Horren ondorioz sortu ziren hainbat teoria higienista, eta zahartzarok ekar ditzakeen ajeak minimizatzen saiatu ziren ahalik eta neurri handienera. Arkitektura nolabaiteko konpentsazio edo erremedio moduan erabiltzen zen hortaz. Ildo horretatik jarraituz, eredu konpentsatzailearen ondorio bezala, Pertsona eta Ingurua (P-I) bateratzen eta elkarrekin lotzen dituzten azterketak egin dira batik bat Giza Zientzien alorrean.


Zahartzaroren Teoria Ekologikoa (ingelesezko Ecological Theory of Aging) lehena izan zen ingurumenak zahartzaroran izan dezakeen eragina azaltzen eta aztertzen (Lawton eta Nahemow, 1973). Teoria hori osatzearen, Rowe eta Kahn-ek (Rowe, Kahn, 1987, 1997) zahartzaro arrakastatsua (Successful Aging ingelesez) proposatu zuten. Ondoren Baltes eta Baltes-ek Aukeraketa, Optimizazioa eta Konpentsazioa (Selection, Optimization and Compensation ingelesez) izeneko teoria izan zuten ardatz (Baltes eta Baltes, 1990). Teoria horrek pertsona hartzen du ardatz, eta fokua pertsonak duen aldatzeko gaitasunean oinarritzen da, nolabait pertsonari egokitzen ez zaizkion inguruneak eta ingurunearen gabeziak orekatze bidean. Pentsamendu teoriko hauek guztiek eragina izan dute proiektu arkitektonikoan bai eta erabiltzaileen artean ere. Gainera, bizi-esperantza handitu den heinean, gizarte-sail honen eta zahartzarora ulertzeko moduaren konplexutasuna ere

5 Esate baterako, Modulor-a, Le Corbusier-ek garatua 1948-53.


6 Henry Dreyfuss-en ikerketa antropomorfitikoak (Diffrient et al., 1974) pertsona nagusientzako, zeinak gorpil-aulkietan dabilzanendako egokituak diren.

4 «Active Aging» Osasunaren Mundu Erakundeak sortu duen kontzeptua da (WHO, 2002).

**Irudia** ~ Ikergaia (etxebizitza-eredua) eta Espainian diren aukera zabalduagoak azaltzen dituen diagrama.  
**Iturria** ~ Heitor García Lantarón



**Irudia** ~ Hiru jokalarari nagusien eta diziplina anitzeko ikuspegiari oinarritutako hiruz diziplinen arteko harremana.  
**Iturria** ~ Heitor García Lantarón



handitu da. Zahartzarora ez da jada gaixotasun bat balitz bezala artatzen, bizitzaren ugaritasun moduan baizik. Arkitektura-eredu konpentsatzaileaz gain, adinekoak aktiboki, independenteki modu erosoan parte hartu nahi du bere bizitzaren azken momentuetan. Finean, adinekoa ahaldundua sentitzeak berebiziko garrantzia hartu du<sup>7</sup> (García eta Soler, 2015: 30). Beraz, PI batetik, PIE Pertsona Ingurua Ekintza eskema batera pasatu beharko genukeela esan daiteke, eta irisgarritasuna bezalako kontzeptuez gain erabilgarritasuna ere uztartzera eramango gaitu<sup>8</sup>.

### Ondorioak

Ondorio moduan esan dezakegu, etxebizitza-eredu berriaren ezaugarriak definitu direla. Adinduentzako etxebizitzak ikuspegi zabal eta ireki batekin egitea jasangarriagoa dela esango genuke, planteamendu zurrunez sor ditzaketen arazoak, ekonomikoak eta beste, galaraz daitezkeen. Baina era berean erabiltzailearen konplexutasuna kontuan hartu beharra dago. Laburbilduz, esan dezakegu, «etxebizitza mota malgua behar duela izan, erabiltzailearen aldaketak jasan ditzakeena, eta gizarte- zein osasun-laguntza jasotzeko baliagarria izan daitekeena. Gainera, bertako erabiltzailea ahaldunduez gain, independentzia ematen

<sup>7</sup> Ahaldunduezarekin nor bere bizitza gobernatzeko posibilitateaz ari gara, norbere bizitzako proiektu pertsonalak aurrera ateratzeko posibilitateaz.

<sup>8</sup> Enable-Age Project, Europar Batasuna. Irisgarritasunaren eta erabilgarritasunaren definizioa (Iwarsson, S. et al., 2003).

dion espazio singularra izatea ere komeni da». Helburua, hortaz, eredu konpentsatzailea gaitzea da eta diseinu unibertsalean barneratze<sup>9</sup>, Mugimendu Modernoa banatzen zuen espezializiotik haratago. Urte gutxiren buruan, gure gizarteetako talde gutxitu handiena izango da eta, ondorioz, bilaturiko soluzioak minoritario izatetik nagusi izatera pasako dira halaberrez.

### Esker onak

Autoreak eskerrak eman nahiko lizkieke Eraikuntzaren Ikerketarako Institutu Daniarrari eta bereziki Camilla Ryhl eta René Sørensen-i, Jose María de Lapuerta tesi-zuzentzaile eta lagunari, hainbat elkarte eta bizilagun talderi, eraikinak bisitatzen eta galdetegiak erantzuten lagundutakoei, eta, azkenik, hainbat arkitektori, haien esperientzia eta dokumentazio grafikoa eskaintzeagatik.

Ikerketa hau Gobernu Daniarraren «Cultural Agreements» 2014-2015 bekari eta Madrileko Unibertsitate Politeknikoak emaniko 2015eko Erasmus+ bekari esker egin da.

### III

Kepa Iturraldek itzulia.

<sup>9</sup> Universal Design, 1997 Center for Universal Design (CUD).

## Bibliografía

- Baltes, P. eta Baltes, M. (1990): «Psychological perspectives on successful aging: The model of selective optimization with compensation», *Successful Aging. Perspectives from the Behavioral Sciences*, Cambridge: Cambridge University Press, 1-34.
- Colomina, B. (1997): «The Medical Body in Modern Architecture», Cynthia Davidson (ed.), *Anybody*, New York: Anyone Corp., 229-239
- Diffrient, N.; Tilley, A.; Bardagjy, J. eta Henry Dreyfuss Associates (1974): *Humanscale 1/2/3, A: Portfolio of Information: 1: Sizes of People. 2: Seating Considerations. 3: Requirements for the Handicapped and Elderly*, New York: MIT press.
- Fernández-Llebrez Muñoz, J. (2013): «La dimension humana de la arquitectura. Aprendiendo del Team 10», *Arquitectura y Urbanismo*, XXXIV. bol., 1. zk.
- García Lantarón, H., Soler, A. (2015): «Accesibilidad Universal: Viviendas para toda la vida», *Aenor, revista de la normalización y la certificación*, 297, 28-33.
- Ginnerup, S. (2010): «Hacia la plena participación mediante el Diseño Universal», *Colección Documentos, Serie Documentos Técnicos*, 21.019, Madrid: Ministerio de Sanidad y Política Social. Secretaría General de Política Social y Consumo. Instituto de Mayores y Servicios Sociales (IMSERSO).
- IMSERSO (2014): «Informe 2012, Las Personas Mayores en España. Datos Estadísticos Estatales y por Comunidades Autónomas», *Colección Documentos. Serie Documentos Estadísticos*, 22.027, Madrid: Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad. Secretaría de Estado de Servicios Sociales e Igualdad. Instituto de Mayores y Servicios Sociales (IMSERSO).
- Iwarsson, S.; Oswald, F.; Wahl, H-W.; Sixsmith, A.; Sixsmith, J.; Széman, Z.; Mollenkopf, H. eta Tomson, S. (2003): *The Enable-Age Project. Enabling autonomy, participation, and well-being in old age: The home environment as a determinant for healthy ageing*, ENABLE-AGE. Poster, European Commission project QLRT-2001-00334, Sweden: Lund University.
- Lambert, L. (2012): «A Subversive Approach to the Ideal Normalized Body», *Architectural Theories* [bloga]: <<http://thefunambulist.net/2012/04/29/architectural-theories-a-subversive-approach-to-the-ideal-normalized-body/>> (kontsulta: 2015-09-25).
- Lawton, P. eta Nahemow, L. (1973): «Ecology and the aging process. The psychology of adult development and aging», Eisdorfer eta Lawton (ed.), *The Psychology of Adult Development and Aging*, Washington DC: American Psychological Association, 619-674.
- Moody, H. (1988): *Abundance of life: Human development policies for an ageing society*, New York: Columbia University Press.
- Neugarten, B. (1974): «Age Groups in American Society and the Rise of the Young-Old», *The Annals of the American Academy of Political and Social Science*, 415, 187-198.
- Rowe, J. eta Kahn, R. (1987): «Human aging: Usual and successful», *Science*, 237, 143-149.
- Rowe, J. eta Kahn, R. (1997): «Successful Aging», *The Gerontologist*, 37. bol., 4, 433-440.
- Sancho, M. eta Rodríguez, P. (2001): «Envejecimiento y protección social de la dependencia en España. Veinte años de Historia y una Mirada hacia el futuro», *Intervención Psicosocial*, 10. bol., 3, 259-275.
- World Health Organization (WHO) (2002): *Active Ageing, A Policy Framework. Ageing and the life Course*, Geneva: WHO Press.